

# Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak

## TXOMIN PEILLEN

**A**ndoze Ibarra Larrainē Ligi-Santa Graziko mugetan den auzotegia da, garai ederrenean hogeitahamar 30 etxetara iritxi dena eta hustutzeko bidean dagoena. Gaztedanik ezagutzen dudalako eta izen zaharrak dituelako aukeratu dut.

### 1. ANDOZE IZENAZ

Akitaniako hitzharrietan Andos jainko bat da, Sacaze-k erakutsi zuen bezala

Iluno *Andosso* (Narbona)

Deo Bascei *Andosso* (Bassione ibarrean)  
Herculi tote invicto *Andosso* (Sacaze, 22 orr.)

Dirudienez *Andoss* zen izena garai hartan. Tankera hortako izenak ez dira falta Pirineotan non nahi hala nola *Andosilla* (N) *Andozketa* (1025.urtean eta gaur)(N), Balleztana super via *Andosse* (Leire,1055). Zuberoan berean mendi bati *Andoxe* deritzaio. Akitaniar lekukotasunari jarraituz eta sekulan ez baita hasieran “h”rik izan jainko izena iturritzat eman genezake.

Izen hau XV.mendeko *Berterretxe-n Kantorean* agertzen da, honela diola

*Andozeko Ibarra  
ala ibar luzea!*

Ikusiko dugunez ibar hau ez da hain luzea, baina semea hilgo dutela bel-durrez lasterka dabilanari luze iruditzen zaio orduko bide txarretan.

Andoze, beraz aintzinatasun haundiarekin dakusagu.

### 2. IBARRAREN MUGA TA EREMUAK

Ibar hori Ligi ta Larraineko mugar, Ligiren hegoaldeetik Larrainēn Iparaldeetik dago. Luzean 3km eta zabalean 2km ditu; goratasunez 270

metrotik, Hurjüntako indaretxean, 1.050 metroraino Bostmendieta ta Zalhagañen (1.035 m) igotzen da. Ibarraren bi alde, bi maxeletan hedatzen da. Bere "itzalherri" alde badauka, zeinean gehiena basotan dagoen: Jorako Oihana, Katezübietako oihana, Axkaraiko oihana; etxaldeak ur ondoan Uhaitz ondoan dira bakarrik; bestaldea "ekhibegian" dago, *Andóze maxelá* deritzaio eta hor daude, etxalde gehienak eta *haritz oihan* txipiak.

Hain zuzen, Andozeko etxe bakoitzak, etxetik aski hurbil bere *haritztoia* zeukan, pagoa ordea, Zuberoako amankomun lurretan ziren, eta naski goratasuna ez aski haundiz, ez da Andozen izeirik ez *izeidoirik*. Hariztoia etxe baten izenarekin loturik, leku izen bereizia bilaka diteke. (adibidez *Bentaberriko haritztoia*).

Ibar hortan etxekal ikusiko ditugu erreka ta iturriak baina Andozeren erditik igarotzen *Larraiñeko Uhaitza* deritzaio mendi ura. (ikus mapa).

Iparraldeko muga bi errekek egiten dute, *Arhantxoláko erreka* ipar-ekialdetik eta *Erreka xuria* ipar mendebaldetik. Ekialdetik auzotegia mendi kate batek mugatzen du, Santa Graziko mugan, *Jora mendia*, eta Jora puntan (1.069 m.tan) du gaillurra. Mendebaldetik *Mizpiratzégi* gáña, *Bostmendiéta*, ta *Zalhagáñe* dira mugak 1.035 metrotan. Hegoaldeko muga Mauleruntz, *Hurjüntá* (Uren junta) lekua da. Beraz Andoze ibarra ez da kantuak dion bezain luzea.

Gotiko garaiko zerga liburuan ez zaigu Andoze agertzen, nahiz garai hartan ziurrik leku izena zen baina auzotegi bezala badirudi askoz berandua-go jendekatu dela. XIX mende hasieran bi etxe daude Andoze ibarrean Oxteborda, berriki etxetua, Amahandia XVIII.an etxetua eta ostatu bat Bentaberria izenekoa, XIX mendearen hamalagarren urtean nekazari etxe bilakatuko dena Beraz, XIX mende azkenean eta XX.mende hasieran da ibarra jendekatuenik izango eta orduan etxe gehienak egingo, Ligiko ziren borda batzu etxetuz (Idiarteborda, Dordorragaborda, Oxteborda eta abar) edo etxe berriak labakietan eraikiz (Blaskoenea, Jora, Axtegia).

Jendei galdetzen zaietenean auzotegiko etxean noizkoak diren badakite gehienak XIX mendekoak direla eta *Oixtebórda* zeritzaion etxeko lurretan egin zirela lauzpabost etxe berri, Oixtebordako senaremazteak haurrik gabe hil baitziren. Andozeko populatzaileak Larraine, ta Ligitik etorri ziren gehien bat. Lurren erosteko ta etxeen altxatzeko hirur dirubide izan zuten.

1. Ofiziozko soldautza (Artegilla etxea)
2. Ameriketako dirua (Bentaberria, Amahandia, Axtegia)
3. Burdin oletan Larrainen irabazia (Dordorragea)

Gaur, ordea, gehienbat 30 etxe eta ehun bat jende izan zuen auzotegiak ez ditu, bost baizik biztanledunekin, bietan mutilzarrekin, eta denetara hamahirur jende, haietan hiru gazte, horrek esan nahi gutxi falta zaiola desagertzeko auzotegi horri. Jadanik ere, Bentaberrian haurtzaroan bi urte pasaturik eta urtero geroztik han egona, galdu denean arbasoen etxeak ez ditugu leku izen gehienak galdu; bestalde zerratu diren 25 etxaldetako leku izen gehienak, hemendik hamar urte galduak izango dira.

Auzotegia berriki biztanletua izanki, naski leku izen xeheak ez dira hain zaharra, gehienetan, nahiz Ligiko jendeek beren bordak batzutan ibar hortan zituztelako, bat edo beste zahar kutsukoa den; gero leku izen nagusiak zaha-

rrak dira Andoze ibarrean eta Andoze ibarraren luzetik igarotzen baitzen Nafarroatik Zuberoarako bidea, mende askotan salerosketa bide nagusia izango dena zuberotarrentzat.

## 2. Gazte garaian ezagutu etxeak

### 2.a. *Arhantxola.*

Etxe hau hutsik dago, osorik, auzoen ustez *Arhan-zola* da, alegia ibar-txoaren ondoa. Eta egia da *Arhantxoláko errekáren* beheko muturraren alboan dela. Etxe hortako belardiak dira. Andozeko etxe gehienek moduan Ligikoa da. Etxe hortako belardiak: *Arhantxoláko okholía*, *Axkáraipeko sorhóa* eta *Mulina zokóa* (Mulina izen bitxia, errotari *eibera* esaten bazaiola-ko zuberoceraz) *Katezübiétako bordá*.

### 2.b. *Bentaberria.*

Etxe hau Larrainekoa da nahiz Andozekoa izan. Gure amaren aldetikako etxondoa da, Larraineko familia bati saldua. Etxalde hori Arhantxola baino haundiago da, bost jende bizi dira etxean eta hona nolako lurretan. Etxe atzeko belardiak *Bentaberriko okholü* izena dauka, baina etxe ondoko belardia zelaia, ordeka baldin bada izen arruntez esan ohi da *okholü*. Etxaldearen mugak dira alde batetik paperetan agertzen den *Athegatxéta* izen zaharra eta izenak dion gisa, desfiladero edo ibarrean hestugunea da, Aintzina ez zen bidea hortik igarotzen eta gaur, hegoaldeetik dagoen basa leku horri *Man-khatxéta* diote jendea erortzen eta kolpatzen baitzen, zuberoceraz *mankhatzen*.

Gaur, *Bideberria* esaten zaiona Athegatxetatik igarotzen da, baina *bide-zaharra*, artzainen bide zaharra leku segurragotik ez ibar ondotik baina ibarra goiti mendebaldetik zihoan hori zen Bentaberriko lurren muga gainetik, *Kukuxtegiá* lekuan *Kukuxta* zuberoceraz *zelata-goaita*- bezala da, erabilia, beraz Zelatagunea zen, hortik ikusten baitziren jendeak Larrainetik heldu eta Ligitik igotzen. Ekialdetik ibaiak ta bideberriak mugatzen dute etxaldea.

Izen jakingarrien artean belardiak dira

*Irapordá* (Idiarteborda lehen etxe izana): bi belardi

*Etxekopárea* (lehen etxe izana, etxe desagertua): bi belardi

*Jórako sorhóa* (Jora mendiaren hondoan baita): belardi bat

*Jaúnttoenea* (etxe desagertua bi belardi)

Urak hauek dira

*Larrainéko Uháitza* saihetsean

*Errekaxúria*, lurren erditan

*Erreka gorria*, Jorako sorho alboan.

*Haitxpétako ütúrria*, edateko ura, *Bideberriaren* ertzean

Basoak hauek dira

Jorako oihana, Etxekopareko oihana.

Ez dago mendirik lur hauetan baina ibarra goiti doan hegari esaten zaio *Andozéko bixkárra*, harrokaduna da eta bidetxigor bat baizik ez du.

Izen jakingarriak dira esate baterako Bentaberitik hurbil, Erreka xuria goiti joaitean, *Hartzhabiáko oihána* garai batean arauetz herria jendekatu gabe, hartzak hor nonbait bere kabia egiten zuelako izendatua ote.

Amaren etxondo hau saldu zenean, 1965.an ondokoek leku izen hainitz galdu zituzten, eta anaia ta bioz kanpo, etxe hartan bizitu direnen artean hilk dira auzoek oraindik izen bat edo beste dakite, eta gu biok azken lekukoak gara askotan.

*Athegatxetak* behar bada Athe gaitz esan nahi du nahiz ere *Atheko atxeta* etimonaren bidez azaldu liteken leku hori haitzez, eta haitz hutsen egindakoa baita. [Nola nahi ere beste lekutan Zuberoan *Atx*, arkaitz esan nahiarekin azaltzen da, San Grazin arkaitz muraillaz inguratutako lekuari, San Marti harriko bidean, elizatik bi kilometrotan *Atxárte* deritzaio (ez da haritxarte, ezen goratasun hortan ezin baita haritzik sortu, eta izai lekua baita); bestalde arkaitz hutsezko mendi punta bati, Lakurda ta Lephailako lepoaren artean *Axkorriága* deritzaio eta benetan aitza harroka bilusik, gorririk dago].

Nahiz Andozeko Ibarretik kilometro batez urruntzen garan Larraineko aldera, Athegatxetako pendoitzaren erdian ibarraren mazelatik behera arkaitzen artean erreka piña jaisten da eta *Lauaxétako erreka* deritzaio, hain zuzen errez aurki ditezke “lau arkaitz” erreka horren inguruan.

Arkaitzetan gaudeno *Athegatxéta* edo *Mankhatxéta* delako ibar zatian, bere giza itxura gatik *Tximino-botxéa* deritzaio bati eta hor lekuizen berriagoa dugu ezen gaur arkaitzari zuberotarrek *botxe* baitiote, ez *aitx*.

Azken harri aipagarria, *Botxe-handía* da hau ere izenez eta izanez berria, ezen duela ehun ta berrogei bat urte, goiko menditik Uhaitzera erori baitzen. Bentaberriko lurrak ur ertzera iristen dira ta bestaldean, gorago, goi arkaitz bati *Axkárrei* deritzaio (Aitz garai, noski).

Aurrera joan baino lehen, esan behar da Zuberoan asko etxe bakoitzak, etxetik berrehun metro bat gorago mendian *bordalte* izeneko lurra baduela. Eta hainbestetan zuberotarr ez direnek nahasten dituztenak argitzeko ikus dezagun zer lotura dagoen aterpeen eta lurren artean.

Aterpea	lurra
borda	bordalte
etxe	etxalte
olha, olha-etxe	olhalte

Gauzak ez dira beti hain bakunak izenekin ezen XIX.mendean “kalean”, karrikan ziren etxeek, seme gazte bati beren mendiko borda ematen zuten etxetu zezan halaxe baditugu:

Ligiko karrikan	Andozen
Idiárte	Idiarteborda (Iraporda)
Oixte-hiri	Oixtebórda (Oixteneá)
Etxekopáre	Etxekopáreborda

Izenek etxeen historia erakusten digute batzutan eta oso bereziki, huna urtegun batzu, amaren aldeko etxondoaz



- 1804.an: etxea Idiardebordan  
 1824.an: Bentaberria eros eta etxeak ta etxaldea hara aldatzen eta doblatzen  
 1887.an: Bentaberriko etxeak Etxekopareborda etxea erosten du eta etxea galtzen da 50 urteren buruan.

Beraz *Idiardebórda*, borda izan da, gero etxetu eta berriz gaur borda bilakatu, berdin *Etxekopareborda*, biak, gaur Bentaberriko jabetasunak izanki. Eta kondaira ez da hortan bukatuko.

## 2.c. *Oixte*.

Etxe honen izena zaharra eta bitxia, Andozeko bi etxe zaharrenetarik bat da eta bere ama-etxea Ligiko kalean, *Oixte-hiri* dauka. Ez da etxalde zabala, baina biziena ta jende gazteduna da; bere lurrak ur ondoaren bi aldetatik ditu, eta aldapa latzik gabe. Erditik doan erreka: *Oixteneko erreka*.

Bordalteak izen arraroa dauka *Giranói*, ezen baldin ez bada etimon zaharrago bat, zuberoraz giranoi hitzak hegaztien papardo edo gera esan gura du. “Buche”tik, belardira nola igaro den ez da errez ikusten, nahiz belardiaren erdian arkaitz batek, holako konkorr bat egiten duen.

Beste belardiak, *Oixteneko okólü*, erraten zaio, eta belardi ta borda bat daukate aintziña etxe izana —guk ez etxe ezagutua— *Errekálte*. Gero etxetik goitik iratze (garo) egiteko leku bat, itxia zegoena aintziña *Oixteneko zerrategía* da. Orain ere *Andozeko eiherá*-ko zen *Zübüürü* belardia, bazka moduan baliatzen dute, baita *Urrüxterripéa*. eta *Borda béltxa* ere.

## 2.d. *Andozéko eiherá* (Errota nagusia).

Arhantxolan bazeukaten errota, Bentaberrian, beste bi auzoekin Larrainekoko *Parapolatzeko eiherá*, baina Andozeko urak ez aski haundi izanki eta Eiheralte gelditua, gure haurtzaroan ta gaztaroan, jende guztiek artoa ta garia irinarazten ehoarazten zuten errota hortan; oso errota sendoa zen erreten zabal batekin ura Uhaitzean hartzen baitzuen, gero ondoan ikulu txiki bat eta aruntzago, ostatu egiten zuen etxea zegoen. Ez ziren nekazaritzatik bizi, bi belardi (okolü eta Zübürü) ta bi behi esnadun zeukaten; Lurrak auzoei emanak. Inor ez da bizi etxe hutsean, fabrika langileak ziren aita semeak. Garai batean berak indaretxe haundi batean langille ta, eiherarekin Andozeko bospasei etxeei elektrizitatea ematen zuten.

## 2.d. *Jóra etxea*.

Etxe hau ibar hestune batean dago, Joramendiaren azpian eta bere lurrak bi arkaitz haundiek mugatzen dute *Ahüntzüdü* (ulergaitza da, *ahüntz üdü* “ahuntzaren kirtena” da eta *ahüntz* + *üdüri* “ahuntzaren antzekoa”); beste arkaitza *Moskorá* da (mosko + gogor). Etxe horrek *etxape* bat dauka. Bere bordaltari *Espiléko bordá* deritzaio, Ligi Espilekoa izan baitzen eta garai batean berrogeitahamar bat urteez etxe izana. Bordalte horren gainetik larre ta

oihanak badira *Afiòs* izenekoak, hitz er. horrek erran nahi du, Erregeren “fief” edo lur alkilatua zela. Afios-en garai batean XIX.mende azkeneraino bizizaleak egon ziren, etxeak desagertu da. *Afius*, okzitanoz kidesasuna da, edo Zuberoako foruan “erkida” deritzaion, erdizkako lurra; gaskoinez gaur gaitzespen hitza da.

## 2.e. *Harrixúria*.

Etxe horrek izena merezi du karaitz xuriz inguratua delako, baina etxe behartsua zen eta leiho-ateak ez ziren harriz etxe onetan bezala, baina zurrez. Harrixuria, *Olalárrü* deritzaion harri muraillaren azpian zegoen, eta handik harriak lurretan erortzen ziren; etxe horrek ez zuen bordalterik ia etxape bat eta etxagarai ezagutu ditugun azken biztanleak jornalean zebiltzan; etxea erori egin da, ondoan zegoen arditegia ere.

## 2.f. *Jaunttoenéa*.

Etxe hori bi belaunaldiak ezagutu dute. Jauntto delakoak belardi bat eta oihan bat zaukan, eta gaitzizena zeukan “jauntxikia” alegia, behartsua baitzen, familia Ameriketaratuta zen, Afios eta beste etxe desagertuetan bezala, XIX.mendean.

## 2.g. *Etxekopáre*.

Belaunaldi batek etxea egin zuen, eta *etxape*, *etxagarai* eta “Harixtoia” zeukaten, etxaldea saldu eta Ameriketaratuta ziren, lurrak Bentaberriko bordalte bilakatu ziren, gero 1930.ean handik itzuli zen —etxea gorde zutelako— arreba zaharrena, behartsua Frantsesa Beltxa, eta bere seme “Txinkor” (urdaia) esaten zitzaiona, etxe horrek *Txinkortégi* zeukan 1940-1960 raino orduan hil zen azkena eta Etxekoparea desagertu etxe bezala.

## 2.h. *Eiherálte*.

Etxe hortan, aintzinako Errege lurra bazegoen *Eiherálteko afiósá*, etxagaraiko belardia, etxapekoa. Eta *Errekáko sorhóá*. Oso etxalte txikia zen ta “eihera” zeukaten (errota) horregatik halaxe zeritzaion, 1950 hil zen zurgin moduan lan egiten zuen hango azkena, mutil zaharra eta lurrak, Axtegira pasatu. Etxea erori.

## 2.i. *Amahándi*.

Etxe hori Eiheraltetik goiti dago. Etxea hutsik baina zutik berdin aterpe guztiak beren onean. Etxe horrek naski bere etxapea, ta etxagarai bazuen, baina bidea behetik gora iristen zen aldetik belardi bati esaten zitzaion *Etxa-*

*bürüko sorhóa*. Bi belardi handi zeuzkaten beren bordekin, *Bildotsén bordá* eta *Errekáko bordá*; beren bordaltea Lexardoi (Lizardi) *Olalárrüko* arkaitzaren atzean, mendi lepo edo ate baten sorbaldan dago, 760 metroan. Etxe hau Andozeko zaharrenetarik da, XVIII.mendean ezagutua.

## 2.j. Axtégi.

Honela diote denek etxe honi nahiz idatzita eta aintzinako (XIX mendeko paperetan) *Ariztegi* agertu, etxe hau Amahandia-ren adar bat zen eta gazte ta zaharrak asarretu zirenean, Ariztegi etxetu egin zen.

Etxe hortako Bordaltuari Xiloka edo Xilonka (Zuloa, sakona) deritzaio eta Bezkoiko lepoaren azpian erreka baten iturbegian, sakon batean dago.

Beste belardiak etxe inguruan dira, *Etxapéa*, *Arteko sorhóa* eta gorago *Afiós* belardi luzea, berriro agertzen da izen arrunt hau, Erregeren lur izan dela salatuz. Gainera 1925.ean Eiheralteko lurrak erosi zituztenean, hango afios-a erosi zuten eta beste belardi bat *Eiherálteko afiós*a da.

Gero etxe horrek ere badu hesiz inguratutako garotegia *Axtégiko zerrategia* deritzaiona.

Etxe hau bideberritik gain batean ondo ageri ikusten da, beko aldetik *Óixte* edo *Óixtenea* daukala ta, goiko aldetik *Amahandía*.

## 2.k. Andoxégi (et. Andoze hegi).

Etxalde hau nahikoa aldapatsu (zub. patar) da

Eta Alde batetik *Andoxégiko erreka*k mugatzen badu Ekialdetik “Bost mendietako” bidea Berterretxeren kantuan Mari Santz-ek hartu zuena XV.mendean; hegoadetik *Gerezitzepéta* (Gereziondoeta) lekua dago mandobide bat, basa-gereziondoz itzalpetua.

Andoxegiko bordaltea, aintziñako etxea zen *Etxebestéa* da, bi belardi zabal nagusi ditu etxe alboan *Etxapéa* eta *Etxagaráia*. Etxe hortan mutil zahar bat bizi, ez du segidarik. Holandesek etxea erosi nahi dute, *Amahandía* erosi beharrez dabilta ingelesak.

## 2.l. Dordorrága.

Hau aitaren etxondoa da, eta Andozeko hegoadetik *Erreka xúria* goiti joanaz, etxe gorena (570 m.). Aintziña, aita esan zigunez eta paperetan azaldu den bezala borda bat zen *Dordorrágabordá*, Oixtebordari gure arbasoak, Celay (Zelai) delakoak erositia, hura Larrañetik zetorren burdinoletan diru eginik.

Etxe hau askoren moduan lurrak labakitzuz edo —bordaltearen kasuan— burges bati erosiz haunditu da, bere 35 hektarekin Andozeko haundiena izateraino. Etxaldea ederra izanik ere, inor ez da etxe hortan ezkondu ez da segidarik eta hemendik berrogei urte izenak ere galduko dira.

Etxearen izena bitxia da, etimon errezik ezin eman, - *aga* atzizkia zer

den badakigu baina *Dordorra durdura* txoriak daude lekuan? *Durduratu* egiten zen hor? Ez da batere argi, ez dugu irtenbiderik ikusten nun ez den erdal izen bat euskaldundua. Euskaraz hurbilena lizateke *Totorica* ala galdutako hitza da *Dordorra*?

Etxalde bera alde batetik *Erreka xuriak* mugatzen du, bestetik *Haltzütürriko erreka* (izen elkartu horren bigarren zatia, üthürri da, baina zuberorak hitzelhartuetan ez baitu bi“h” onartzen “üthürri”k bere “h”a galtzen du). Etxaldearen erditan *Bellopéko erreka* pasatzen da (Bellope: berope, leku babestuei esan ohi zaiete Zuberoan, beste *Bellópe* bat badago Santa Grazin).

Etxe hori borda etxetua da, 1834.an eta berritua 1880.an izentegi klasikoak dauka, *Etxapéa*, *Etxegárai txipía*, *Etxegarai handía*, *Errekaxúriko sorhoa*, *Khintapéa*, *Peko sorhotxárra*, gero izen arruntez “zerrategia” ta “gaztañáztoia” badago.

Dordorragako bordaltea etxetik hiru kilometrotan dago 750 metrotan, baina etxeko lurrak baino hobe dira goikoak, Bordalteari *Andiotzéa* deritzaio eta handik hurbil, desagertutako etxe ta bordari *Andióa* erraten diote, beraz *Andió* erroa zer den ez dakusagularik zahar usain andia daukala esanaz mugatuko gara.

Bordalte hortako belardiak izen berriz, *Sorho handía*, *Erdíko sorhóa* eta sorho txipia dira, eta Andiotetzko zerrategia badago alboan.

Etxearen ingurunetan bi borda daude bata *Bellopéko bordaxkóa* eta bestea *Losá* azken hau garai batean arbelez tapatua, izan baitzen, *Bellópekoa* lastoz zelarik.

Dordorragako etxearen albotik igarotzen den erreka *Zokóko büstüne* (Zokoko bustinune) delakoan sortzen da Mizpiratzegi tontorraren azpian, Bellopeko eta Haltzütürriko errekek *Errekaxúri*a goatz. Bitxi dena papere-tan Errekaxuria, batzutan, *Athegatxétako erreka* izena dauka. Ezen beheko aldetik Athegatxetak (Mankatxetak gaur) erreka hortan hasten baitira.

Dordorragan izen gehiago zegoen, baina alaba bat —gure izeba— etxean ezkondu baitzen, kanpotik etorri osabak ez zituen izen guztiak ikasi. Dordorraga pean arotz bat egon zen garai batean Arotzetxean eta agian ere errota bat ezen Bellopeko ta Errekaxuriko erreken juntan *Eiheraxárre* lekua badagon.

Izen jakingarriena da *Petirisbérho* edo *Phetirisbéro*, delakoa larre bati emana, izen berdina baitago Santa Grazin gure etxearen gibeletik goiti. Zer erran nahi duen ez da errez zulatzen, *Petiris* baten sasia dela baizik, baina nola liteke pertsonaia berdina bi lekutan eta ez ote du zerbait ikusketko *Phetiri* gosearen sinbolo denarekin, edo Jon Done Petiri sainduarekin? Ez dugu erantzun zehatzik, baina Basaburuan askotan, herri batetik bestera lekuizen berdinak etimologia berdinekoak, eta etimon ilunekoak topatzen ditugu.

## 2.m. *Artegillá*.

Etxe hori Andoxegi (Andoze hegi) eta Dordorragako hegiaren artean dagoen hegilla, hegitxoan zegoen, alegia arteko hegillan, hortik bere izena *Artegilla*. Etxe hori 1852.an soldado ohi batek eraiki zuen “bere burua saldu ondoren” esaten zen bezala, beste batzuen lekuan lau bider —ordainduta—

soldautza eginik. Frantziako Enperadoreak eman zion “Congé de libération” delakoa etxe suntsituaren sukaldean harri ta harbel artean aurkitu nuen ezen etxe hau 1952.an —zergarik ez ordaintzeko— aitaren etxondokoek utzi baitzuten erortzera.

Etxe horren inguruan zeuden “gaztañaztoia” “etxapea, eta etxabürü” erosi zituzten gure askazgoako Dordarragatarrek, denbora berean etxetik goiti zen zerrategia, eta *Burgiariko* bordaltea. Hiru belaunaldi bizitu dira etxe hortan, azken mutil zaharra, gure haurtzaroan ezagatu genuen.

### 3. LARRE TA “BAXAK”

#### Lárrea

Euskal Herri gehienez bezala, abere-bazka bat da, baina landugabea, hesirik gabea eta kalitate ertainekoa. Andozen, bizpalau etxeren arteko jabetasunean daude, edota zati batzu ere Ligiko herrikoak edota Zuberoako auzo-lurrak. Halaxe dira *Olalárrü* azpiko “Etxekopareko larrea”, Burgiari püntaren azpiko “Burgiariko larrea”, Bezkoiko lepotik behera den “Bezkoiko larrea”; gehienak ibarraren aldapa erditsutan daude, “Irapordako larrea” ta “Arhantxolako larrea” izan ezik, horiek ibarraren zolan (hondoan) daudelako.

#### “Baxák”

Zuberoeraz harri, arkaitz eta amildegi lekua da; batzutan elorritz edo alambrez hesia, inguratua abererik heetan sar ez dadin eta ez ditezen “larrützez” hil. Andoze ibarrean hiru baxa bada: *Athegatxétako baxák*, hegoaldetik, *Jórako baxák*, iparekialdean, eta *Olalárrüko baxák*, iparmendebaldean. Naski, baxak “herri-lurrak” dira iñor ez baita aski eroa haien erosteko. Egun batean aluminio edo kobre aurki baledi, erabilgarriak lirateke.

### 4. MENDI, GAIN, TONTOR, PHÜNTA, BOTXE, HARPE

Bostmendieta (eta gaiña Etxebarren dagoelarik) izen hortaz kanpo ez da *mendi* izenarekin izen bereizirik Andozen. Izen arrunt bezala erabiltzen da, lehenik 800-1.200 m tako mendiari errateko, handik goiti “bortü” baita, gainera bigarrenik herri-lurra denean *Lígi mendía* (Ligi herrikoa) *Lexántzü méndi* (Lexantzü herrikoa) gainera mendia, gaillurra, gehi aldapa da. Gañ, berdin orokorra da, Andiotzgan baina esaten da Zalhagañe, azken “e” batekin. *Tóntor* izen arrunta da zuberoeraz (batzutan *kásko* esaten da), baina *Tüntürrótza* esaten zen Athegatxetako sarreran zegoen arkaitz bati. Mendi gaillurra zorrotz denean, “phünta” esaten zaio, halaxe, *Urrüxtérri phüntá*, *Andiozgáin phüntá*, *Burgiári phüntá*.

Botxe esaten zaio arkaitzari hola: *Botxe handía*, Uhaitz uraren erdian, *Olalárrüko botxia*. *Harpe* (Harripe) bat baizik ez da Andozen, *Andozeko harpéa*, bideberri ertzean, Lurdesko birjinaren irudia ipiñi zioten 1949.an.

## 6. LEPOAK, MENDIATEAK.

Lau lepo nagusi lau mendi ate daude Andozen: *Zibiligiéta* (zer esan nahi du?), *Bezkoí* (Zer da Bez, belzk?, Beltz?) *Lexardói* eta *Ahüntzkapárre* (Ahuntz sasi).

## 7. PEREN ERABILERA.

Pe atzizki edo hitz bezala beheiti ta behera baino gehiago erabiltzen da Zuberoeraz (nahiz Larrainen Abehera eta Beheti etxeak diren).

7.1. Etxean suntsitzen denean azpiko *etxápe*, *-pe* laburtzen da.

*Etxekopárepe* (belardia)

*Irapordápe* (belardia)

*Etxebéstepe* (belardia)

*Artegillápe* (belardia)

7.2. Mendi baten azpian egotea seinalatzen du.

*Urrüxterrípe*

*Olalárrüpe*

7.3. Zuhaitz batzuen azpian egotea (oihana, basoa ez denean) alegia zuhaitz multso baten pean.

*Andoxégiko gerezitzepéta*

*Bentaberríko gaztañatzépe*

*Bentaberríko erramützepéa* (Erreñoizpea)

Batzutan “gañ” berdin egoera baten izendapena da *Axkáraipe* eta *Axka-raigañ* eta izen arruntez esan liteke “bide aldegañetik” “bide aldepetik”.

## 8. UREN IZENDAPENAK

Uhaitz, hitz orokorra da, bereizia haina “urgaitz edo mendi-ur” esan nahi baitu (Zuberoatik kanpo ere) Izen bereziz, *Larrainéko üháitza* esaten da Andozen; etxearen izena ala lekuarena hartu al dute *Arhantxoláko* eta *Oixteneko errekek*, bestelan koloreak erabiltzen dira, *Erreka xúria*, *Erreka gorriagero* iturriekin aberatskiago, *Haltzüthürri*, *Haritxpétako üthürria*, *Üthürri gorriá* eta abar.

## 9. LEKUIZENAK JENDE IZEN BILAKATZEAN ALDATZEAK

Oraindik erdalduntzeak kontutan hartu gabe zuberoeraz ohitura nabarmena dago, etxe-izena, bokalez bukatzen denean, etxejoaunaren izendatzeko, batzutan, aldatzea ikus dezagun noiz.

-“e” azkenean “alte, arte, xarre” eta abar

Etxea	Etxekojauna	Etxekanderea
Eiherálte	Eiherált	Eiheráltsa
Idiárte, Idiartia	Idiárt	Idiártsa
Bordaxárrea	Bordaxár	Bordaxársa

“e” batekin bukatzen diren etxe izena jendetara pasatzean galtzen dute

-“i” azkenean “berri, herri, hegi”.

Etxea	Etxeko jauna	Etxekanderea
Salabérri	Salabér	Salabérrisa (?) Salabérsa
Bentabérri	Bentabér	Bentabérrisa; Bentabérsa

baina kontuz! *Andoxegi, Urrüxterri, Axtegi* kasuetan “i” ez da sekulan erortzen.

-“a” azken “ola-aga” bukaerarekin

Etxea	Etxekojauna	Etxekanderea
Dordorrága	Dordorrága (berdin)	Dordorrágasa
Jóra	Jóra (berdin)	Jórasa

baina “ola” rekin ez etxekojauna izendatzean Arhantxol da Arhantxolako (Santa Grazin Baranthol den moduan Baranthola-ko etxeko jauna).

-“o” eta “u” ez dira galtzen etxetik jendera pasatzean ez eta frantses grafian —Lapurdin Larronde, Mendiboure baldin bada— Zuberoan Larrondo, Mendiondo, Mendiburu (Larrañen Kortondo, Mendiondo, Haitxondo etxe izenak, Andozen Carricaburu deitura frantsesez ere).

## ONDORENA

### 1.nik. Leku izenen galera ta demografía.

Gaur Andozen hamahiru jendetatik, bost gazteak dira; ibarraren lanpide bakarra nekazaritza izanki, eta bost haïetatik ez baita iñor lurlanean abiatu, hemendik hogeï urte, baldintza hoberenetan, herri honetan hirur erdaldun etxe biztanletuak izango dira bide ertzean direnak hain zuzen; beraz lekui-zen xehe guztiak galduko dira, jendeen mintzairatik, nahiz batzu katastroan geldituko diren.

### 2.nik. Leku izenen erdalduntzea.

Jadanik hasia da erdalduntze prozesua, Andozeko muga dagoen *Hur-jüntá* delakoari, gazteek —eta Ligin gehienak erdaldunak dira— *Jonction* itzulpena darabilate. Etxe izen batzu ere frantsestuek dira *Arantchole* eta *Dordorrague*, grafian. Ligin leku batzuen euskal izena frantsestua da hauzotegi bati euskaraz *Súsélgü* deritzaio baina horko lau haurrak erdaldun izanki *Zúzelg* diote Herri berean leku izen batzu zaharrez bakarrik ezagutuak dira euskaraz, *Lexántzü méndi* delakoa, mende hastapeneko maisu batek, “Le chapeau de gendarme” deitu zuen, alegia garai hartako gendarmen sonbrailuaren itxura zeukala Geroztik frantses “hedexuriek” beren ginbaila, beren txapel okerra utzi dute ta kepi bat buruan daramate, horregatik

zentzugabekeria den izen hori nagusitu da Lexantzü-mendi izena jakingarriagoa zelarik, Lexantzü herriaren mendia esan nahi baitu, *Ligimendia*, Ligi herriaren mendia den gisa; halaber guk *San Antóni Uhartéa* bezala ezagutu duguna gazteek ez dute “île Saint Antoine” izenarekin baizik ezagutzen: akulturazioa aurrera doa.

### 3. nik. Izenen aintzinakotasuna.

Mendi eta toki izenetan, zuberuera zaharraren ondakinak ikusten dira, bi nabarmenenak dira.

3.a. Arkaitz esaten zela *Atx* euskalki zaharrean Lekukotasun edo jakilegoa bezala, leku izen horiek direla Andozen *Axkárarai*, eta Santa Grazin, *Atxárte Axkorriága*, denak arkaitzak direnak. *Axkañe*, Larrainen.

3.b. Ateka-ren esan nahiarekin, *Athe* aurkitzen dugu Andozen, *Athe-gatxéta*, XIX.en mendean. Agian esangura antzekoa dauka *Atheréi*, herriak, Eretzü ta Lexantzü mendien arteko ateka alboan kokatua baita.

3.c. Izen arrunt bezala gutti ezaguna eta erabilia ez den *Aran* izena Arhantxola leku izenean agertzen zaigu.

3.d. Atzizki fosila da, Andozeko mugan den lekuan *Bostmendiéta*, plurala, ezen batzutan baina, guttitan *Bostmendiak* entzuten baita; jadanik irakurtzen da izen horren itzulpena, idazki batzuetan “Cinq-monts” itxurapean. Ohartzekoa da ordea nola uso ihiztarien subastetan euskara errespetatzen den eta izen luzeak emaiten, etxeetan erabiltzen diren haina luzeak *Etxagarai txipiko xokóá* bezala, mendian Larrainen *Harrigorripéko har-bixkárre*.

3.e. Izen arrunten eta bereizien muga ez da errez ikusten. Esate baterako etxalde zelaia denean beti *okholü* belardia edo soroa bada, erdizka artoz landatzen zená: norbaitek esan lezake “gure okholü txipia” izen arruntez edo besteak *Bentaberriko okhólü handía* izen bereiziz.

Izen horien artean sar genezake “zerrategia” etxe alboan den, iratze edo garo-lekua, itxia eta etxeko ardien bazka izan ditekena, halaber “*larre*” zerratua ez den bazka lekua.

Gero etxe aldapazu gehienetan bereizten da *etxagaraia* ta *etxapea*, etxearen izena erantsiz izen bereizi bilakatzen direnak.

## 5. IZENEN HIGADURA

Izenen higadurak, arrazoi asko izan detzazke, gehienik erabiltzen dutenek *laburtzen* dituztelako edo zuberuoraren *fonetika legeak*, fonetika aldakuntzek hala baitagite. Errate baterako, paperetan *Idiartebordá* irakurtzen dena, ehun urteren buruan Bentaberri etxeko jendeen ahoan *Irapórda* eman du. Halaxe i e etimon zaileko izenen ulertzeko, askotan paperetara jo behar da, edo hauzo herrian edo auzoko beste auzotegian nola dioten galdetu, bizpahiru adibide emango ditut.



### 5.1. *Saiküdoi* = *Sabükidoi*

Ligiko etxe bati ligiarrek Saiküdóí diote, alta *doi*, baso atzizkia bada, *Saikü* ez da ezer zuberoraz; Santa Grazin ordea ikasi dut, etxe hori, beren herritik ligiar hurbilena dena *Sabükidóí* esaten diotela, berak herri berekoek dituzte izenak itxuraldatzen.

5.2. Alderantzizko adibidea badago, Santa Graziko elizaren hegoalde-tik, barranko bati, arrolla bati, herritarrek diote *Ehújárre* eta itxura hortan izenak ez du deusik esan nahi. Ligin ordea, arrolla horri *Uhatxárre* diote, alegia *Uhaitz txarra* eta egia erran arrolla hortan erreka txar bat badago goi-ko aldean beheko aldean lurpean galtzen dena, eta urtean behin ur juntaraino iristen dena, *ühaitz txarra* da benetan.

5.3. Erdal maileguetan batzutan zuberorak, legearen aurka, ez du “m” sudurkaria hitzen hasieran errespetatzen baina ezpainkari “b” bilakatzen: ha-laxe kostatu zitzaion Altzaiko erretorari ulertzea, jendeek *Biandá*, ta *Biranda* deitzen zuten etxea *Mirandá* zela.

## 6. IZEN ALDAKETA

Nabarmenena *Athegatxéta*, *Mankatxéta* bilakatzea izengoitikoz, bat da.

Andozeko etxeen izenaz berba egiten genuelarik Allande Artigau “Eli-xagarai” ekin berak zion, XIX mendean 1850 baino lehen Zuberoan gehien jendekatua biztanletua zen garaian, beste hamar bat etxe zeudela Larraineko burdinoletan, eskulangintza ere zebiltzanak, bizpalaur Arhantxola etxetik goiti *Mulina zokóá*-rantz, lurgabeko jendeenak, eta berdin Errekalte etxearen aldean, erreka ertzean *Bordabéltxa* dagoen lekuan beste bospasei “eremüts” (behartsu) eta langille; etxe horiek behinbehineko izanki izenak ere galdu dira, ia *Afiós* eta *Andióa* gogoetan daude.

Etxe horiek gogoarazten digute, baldin gaur Andozen lanpide bakarra lur-artzantza bada, garai batean zurginak arotzak, eta burdinola langileak zeudela. Geronek ezagutu dugu *Andozeko eihérako*, errotazaina, *Eiherálteko* zurgina *Andoze Eiheráko* ostatua, baina ez Bentaberriko “zaldi aldategia” ez eta *Arotzétxe*-ko burdin arotza.

ErdiHaroan zeukan jende urritasunera itzultzen da Andoze, etxeak be-lardiak, suntsitzen eta leku izenak galtzen, Allande-k zioetan bere gaztaroan entzundako izen hainitz ez dakiala nun dauden, eta izen asko ahaztu dituela, bera izanki lekuko hoberena gauza horretan.

## ANDOZEN OTE?

Asko eztabaidatzen da Andozeko lurretan baina Santa Graziko herriari loturik den Urrüxterri etxeaz Urrüxterri mendi (1.080 m) delakoaren azpian dagoena, eta beherago dagoen *Urrüxterripe* bordalteari izena eman diona. Urrüxterri, gaurko izen itxuran, *Urritz-herri* ulertzen da.

Andozeko iparraldetik ere eta Andozeko herri berdinean Ligin, dauden bi etxe eztabaidagarri dira ea Húje auzotegian ea Andozen dauden, bata *Blaskoenéa* da, bestea *Elixagaráia*.

*Blaskoenéa* agertzen da paperetan, Blasco batek XIX.mendean egin zuelako, orain jendea esaten dio *Baskoéne*. Etxe hau zutik ikusi nuen duela hogeitahamar urte, orain ia ikuilua baizik ez da zutik gelditzen. Bi belardi ta hariztoi zeuzkan etxeak; Elixagarai etxe auzoak, eta Blaskoenekoen ahide, askazi zirenek erosi egin zuten.

*Elixagarai* etxeak leku izenen, hanhemenka ibiltzea erakusten ditu ezen etxe hau ez dago *Elizagarai* jarreran, etxetik ez da ez eliza ikusten ez kanpaia entzuten herritik hiru kilometrotan dago bizkar batek gordeta; baina Elixagarai-hiriko jenteez zuten *Lürxílo* (Lurzulo) zeritzaiona erosi eta izena pixkanaka aldatu egin zen.

Berdin esan dezakegu *Idiartebordá* delakoarekin ezen Ligiko Idiarte edo Iriarte etxearen adar bat baita eta Ligin etxe hori Hirian izanki eta erditan, Hiriarte izena merezi zukean, baina ez orain borda dagoen lekuak. Beraz etxe izena ez dira beti toponimo edo lekuizen, jatorrizko etxe baten izena hartzen baitute, eta gainera batzutan izengoitikoa *Jauntto*, izentxikia *Blásko*.

## 7. IZENEK LEKUAZ ERAKUSTEN DUTENA

Izenek lekuaz erakusten dutena. Ez dira gehiegi agertzen baina Ekibegiko aldetik oihanek “gaztanaztoi” edo “harixtoi” izena daukate, alde beroa baita. Lepo batean gainetan *Lexardói* (Lizardi) ikustea bitxi da, baita gain bati *Mizpiratzégi* (Mizpira-hegi) ere. Ekibegi horren berotasuna *Gerezitzepéta* (Gereziondope) izenak erakusten eta Leopold Irigarai toponimia baino botanika kontuan bere *xikito* bilduman horrela esplikatzan du, Andozeko bezala zirtoa, hasten dena

*Gerezi beltx jan diat*  
*Kakeria badiat...*

(Il y a beaucoup de cerisiers sauvages dans les Montagnes qui bordent la vallée de la Soule) Hérellentzat egin zuen lanean.

“Itzalherriko” aldetik pagoa da nagusi eta oihanek ez dute holako berezitasunik. “Oihan” izena dakarte.

*Ariztégi* (Axtegi gaur), naski Ekibegi aldetik dago. Etxe izenetan hau da bakarra landareak aipatzen dituen, besteetan hydro-orografia agertzen da, *Errekálte*, *Arhantxolá*, *Andoxégi* edo mendi batek etxeari izena emaiten *Urrüxtérri*, *Jóra*. Ofizioa aipatzen dutenak *Andozéko eihéa*, *Eiherálte*, Bentaberri, izena *Blaskóene*, gizarte maila *Etxekopáre*, izengoitikoa *Jaunttoéne*. Ulergaitzena, agian denboraren higaduraz, *Oixte* edo *Oixtene* (Ohitz-ene?) eta *Amahándi* dira zaharrenak naski, baina *Dordorragá* berriagoa ere zer da?

Notarien paper zahar batzu ikusi ditut (Axtegi, Bentaberri, Dordorraga, Elixagarai) baina agian beste zaharragotan egun batean ausartu ditugun etimologiaren erdiak baztertuko ditugu, Mitxelenak zion moduan, gure etimonen erdiak egun batean baztertu behar ditugu.

Lan honen egiteko erabili ditudan ikerbide ta azterbideak, hauek dira: herrian biltzea nola esaten duten, gehienetan paperetan katastroan edo notari paperetan nola idazten diren ikusi, gero Andoze ibarraren biztanletzearen kondairatxoa egitea, gero lekuan berean lekuak izenekin konparatzeko ikus-teko ea oraindik zerikusia baduen izenak ingurumenarekin, esan nahi dut

giza ingurumenarekin eta Izadi ingurumenarekin. Halere erantzun baino gehiago izango da galdera edo behintzat, behinbehineko erantzun lirateke nere etimologia ugari.

Ikusten denez jakituri askoren muga, eta batzuez argitua baldin bada, leku izenez erakats dezake gure kondaira eta gure literatura ere beste leku batean Berterretxeren kantuaren ibilaldiez mapa bat egin bainuen eta saiatu kalkulatzeko Mari Santzek egin kilometroak, “bideberri” delakorik ez zen garaian, eta errege bidetik kanpo ibili zelako.

Lan hau xumea da, baina beste askorentzat uste dut iturrinoa izango dela ezen Euskal Herrian zeihar, lekuen izendapenetan konstante batzu jadanik ikusten baditugu, garaiekin lotuzteko bidean gaude; aspaldian abiatu zen Koldo Mitxelena *Fontes Linguae Vasconum*-en idazten zituen Miscelanea horietan, berak izen zaharrak kondairaren bidez eta gaurkoekin erkatuz asko argitu baititu.

Zuberoan behintzat, oraintxe kantu bilketan dabilta Uhaitzeko ikerlariak, hemendik bi urte bukatuko dutenean leku izenen bilketa sistematikoa eskainiko diet, uste dut oraindik ordu dela gure hizkuntzaren aberastasun horiek salba ditzagun.

## 8. IZEN IBILDARIAK

Badakigu Zuberoako herri gehienen izenak, beren baliokidea edo izenki-dea daukatela edo zeukatela beste euskal probintzietan, gure Andoze ibarrarekin mugatuz hona baliokidetza batzu:

### 1. Etxeak.

*Bentabéri* (Nafarroan eta Gipuzkoan ere)  
*Elixagárai* (Nafarroan eta Lapurdin ere)  
*Ariztégi* (Nafarroa, Lapurdi, Gipuzkoan, guttienik)  
*Idiárte* (Nafarroa ta Lapurdin)


### 2. Lekuak.

*Axkárari* (Euskal Herri guzian)  
*Uháitz* (Baigorri, Lapurdin, *ugáitz*, Nafarroa Garaian)  
*Jora méndi* (Jura mendi, Lizarran)

Hau eskema bat baizik ez da ezen leku-izenak ongi aztertuz eta bilduz, beste probintzia batzu gaineratu baiditezke zerrendari.

Athekagaxeta izena, berriz, kasu nabarmenena da ez dela aski mapa bat eskuan eta hiztegi batekin lan egitea, lekuan egon behar dela, ezen orduan konturatuko zara, Donibane Garazira joaitean Errobi ibarraren goiti, hestune bat dagoela ibarrean, frantsesez “Le pas de Roland” deritzaiona ta euskaraz *Athekagaitzak*, gero Ligitik Larrainera joaitean hola bizpalau hestugune aurki zenetzazke eta horiek dira *Athegaxeta*; bai leku izenek gordezten dizkigute bi gauza nagusi

1. Galdutako izenak edo behintzat gaur ulertzen ez diren izenak lekuan eta besteetan oraino egiten direnak.



2. Koldo Mitxelenak idatzi zuen bezala, herriak izendatu zirenean, oraindik bizirik zegoela, gure adiskideak X.mendeko koinea deitzen zuena.

## LABURPENA

Artikulu honetan Ligi eta Larrañe artean dagoen *Andoze ibarreko* leku-izenak biltzen dira.

Erromatarren denborako akitaniar hilharri ta altaretan agertzen da *Andoss* jainkoaren aipamendua. Auzotegi hori XVIII-XIX.mendean jendekatu zen.

Horko izenak erakusten digute Zuberoera zaharraren aberastasuna, galdutako *Atx*, *Atheke* hitzak arkitzen direlako eta idatzi-ahozko lekukotasun desberdiñak agertzen direlako.

## RESUMEN

El artículo recoge la toponimia del *Valle de Andoze*, entre Ligi y Larrañe.

En tumbas y aras romanas de Aquitania figura el nombre del dios *Andoss*. El barrio de Ligi se pobló en los siglos XVIII y XIX.

Los topónimos de este valle nos descubren la riqueza del dialecto suletino antiguo, y la presencia de términos como *Atx*, y *Atheke* constatables hoy en el vizcaíno y guipuzcoano respectivamente.

Las diferencias entre los testimonios escritos y orales son significativos.

## RESUME

Dans cet article nous étudions la toponymie du quartier dénommé Vallée d'*Andocé*, située entre Larrau et Licq.

Dans les inscriptions Aquitaines d'époque romaine nous lisons le nom du Dieu, *Andos* en relation avec celui de la vallée, ce quartier de Licq fut peuple au XVIII<sup>e</sup> et au XIX<sup>e</sup> siècle.

Les toponymes de cette vallée nous révèlent les richesses anciennes du dialecte souletin et la présence des termes (aujourd'hui biscaïen) comme *Atx*, rocher, ou labourdin-guipuzcoan tel *At(h)e*, *Atheke*, pour "défilé". Les différences entre les témoignages écrits et oraux sont significatives.

## SUMMARY

In this item we studied the toponymy of Andoze Valley (Zuberoa, infr. Soule) situated between Larrau (Larrañe) and Licq (Ligi) villages. The name of the district is known elsewhere from several altars and tomb stones of roman times in Aquitania, but this district, in fact, was inhabited and populated from the XVIII<sup>th</sup> and XIX<sup>th</sup> centuries. The toponyms of this valley show us the ancient richnesses of the souletin dialect (zuberera) and the occurrence of words forms only known, nowadays in biscaian dialect such as "*atx*" "rock" or in Labourdin-guipuzcoan ones such as *At(h)e*, *Atheke* "narrow pass", relics of an ancient unity of the basque language "euskara". The differences between oral and written testimonies are significant.

